



Areatza

lantzen euskera z

Abendua/04

Areatzako
eusker plana

2. or.

Alkarrizketa:
Gotzon Lobera

5. or.

Gorbeialderen
Gazte Plana

7. or.

Alkarrizketa:
Alkatxofo eta bere
lagunak

8. or.

Aldizkari barri hau, euskera hutzean argitaratzen dana, gure hizkuntzaren erabilera bultzatzeko tresna bat izatea nahiko genduke. Bat edo bi hilabete barruan argitaratuko da eta herritar guztien eskura jarriko da denori interesatzen jakuzan herriko berriei buruzko informazioa emateko



Areatza Euskeraz

Herriko Euskera Plana

Sara Gutierrez eta Saioa Larrea
Areatzako Udaleko zinegotziak

Aldizkariaren lehen zenbaki hau, uste izan dogu aproposena dala Areatzako Euskera-Planaren aurkezpena egiteko. Plan honen barruan ekintza desbardin batzuk jarriko dira martxan, arlo desbardinetan; hau da, irakaskuntza mailan, Administrazio mailan, merkataritza mailan, kultura mailan, familiaren arloan, aisialdi eta kirol ekintzetan baita.

Lehenengo pausuak emoten gabiltza, eta ekintza batzuk daborduko jarri dira martxan, baina apurka apurka herritar guztien inplikazioagaz Areatza euskalduntzea lortu behar dogu, euskera eguneroko bizitzan normalki erabiltzen ohitu behar gara, kalean, dendetan, familiagaz, lagunakaz, eta abar. Esan behar dogu be, ekintza honeek Areatzako gazte batzuen laguntzagaz egiten direala, Miruak Kultur taldea, hain zuzen be.

Zine-saioak euskeraz

Ume eta gazteen egungo kultur kontsumoan, ikusentzunezkoen erabilera oso garrantzitsua da, horregatik udalak aurreko ekitaldie-

kaz jarraituz, ume eta gazteentzako euskera hutsezko zinema-saioak antolatu ditu (igandero arrastiko 6etan Udaletzeko aretoan).

Urtebetetze jaiak

Zerbitzu honeguz urtebetetze-eguna lagunakaz era berezi baten ospatzeko laguntza eskaintzen da. Monitoreek (begiraleek) aukeratutako lekuan (etxean, tabernan, kalean,...) animazioa, musika, jolasak etabar antolatzen dabez.

Kanguro-Agentzia

Euskaraz dakiten ume-zaintzaileen zerrenda bat osotu da eta gurasoen eskura ipini da. Zerrenda honetatik nahi

dan zaintzailea aukeratzen da eta orduka kontratatzen da, umeak kalean zein etxean zaintzeko. Denon ezagupenerako hemen daukazu ume-zaintzaileen zerrenda, izenak eta telefono zenbakiak, aukeratutako gazteari telefonoz deitu eta beragaz geratu zuzenean.

Aipatutako ekintza honeek guztiak euskera hutsean eskaintzen direala esan behar da, beraz, euskeraz berba egiten saiatu behar gara Areatzan denon artean, honegaz gure hizkuntza bultzatzeko aurrerapausu bat gehiago emongo dogulako.

Bestetik aipatu be, datozen hiletan herriko "Bixer" tabernan bakarrizketa (monologoak euskeraz) antolatuko direala. Danok dakizue, ohitura bat bihurtu da hilero oso arrakastatsuak diren monologo honeek entzuteko aukera izatea "Bixer" tabernan, beraz bakarrizketa honeek euskeraz antolatzea ideia on bat izango zela pentsatu genduan, lagun artean euskeraz berba egin eta barre egiteko aukera polita izango zalakoan. Aurtengo lehenengo bakarrizketa "Bixer" tabernan Azaroaren 27-an, gaueko 10,30ean izan da eta bigarrena abenduan.

Ume-zaintzaileen zerrenda:

Eider Petralanda 605 733 877	Mikel Amuriza 699 783 197
Eider Galar 635 701 777	Maitane Campo 627 021 082
Irune Olabarri 636 680 508	Naia Galar 645 722 331
Maitane Diez 650 009 391	Zigor Gallastegi 635 200 015

Eta 2005ean zer?

Beste alde batetik 2005. urterako Euskera Planaren barruan martxan jarriko diran beste ekintza batzuk hurrengo honeek ditugu:

Irakaskuntza arloan etorkinei (immigranteak) lagundu eta gauzak erreztu behar jakez. Euskal Herrira helitzen diranean, sarritan, ez dabe hemengo ohituren eta kulturaren barri, zer esanik ez, euskera be ez dakie, horregaitik, batez be etorkinen seme-alabak euskal erduetan sartzen bultzatu eta lagundu behar deutsegue. Horretarako hurrengo pausoak emongo dira:

- HIZTEGI TXIKI bat argitaratuko dogu hizkun-



Saioa eta Sara Euskera Plana lantzen.

tza ezbardinetan itzultita, euskerazko esaldiak ikasteko eta erabiltzen animatzeko eguneroko bizitzan (dendetan, umeakaz, kalean, eta abar).

Hiztegi honek, euskeraz, gaztelaniaz eta errumanieraz idatziko dira, herriko etorkinen hizkuntza ohikoena diralako eta nahi daben herritarren artean bananduko dira dohainik. Etorkinei

laguntzeko beste neurri bat euskaltegietan matrikula-tzeko laguntzak eskaintzea litzateke, edo baita taldetxu bat sortzen bada, Areatzan bertan emongo litzatekez euskerazko klaseak, AEK-ko irakasle baten eskutik.

Berbalaguna proiektua

Askotan, euskaldunok ez daukagu gure hizkuntzan berba egiteko erarik. Batzuetan lotsaren eraginez, besteetan nogaz ez daukagulako eta askotan ez larritzearren, gehienetan erderaz egiten dogu. Horregaitik beste leku askotan arrakasta handiz jorratu dan proiektua, (Durangon, Elorrion, Gernikan, adibidez) Areatzan bertan jorrazteko egokia dalakoan gagoz.

Berbalagun proiektu hau nori dago zuzenduta:

- Euskera egiten ohitura galdu dabenei, lotsa emoten deutseenei edota euskeraz badakiteni beste batzuei erabiltzen laguntzeko adibidez.

Zertan datza

AEK-ko irakasle bat, bolun-



tarioen, Miruek Kultur Talde eta Udaleko Euskera Zerbitzuaren laguntzaz, euskaldun zahar eta euskaldun barrien arteko lan taldeak osotuko dira, astean behin batuko litzatekez adibidez Udaletxean, danon artean euskeraz egiten praktika eta erreztasuna lortzeko helburuagaz.

Merkataritza arloan euskera indartu

Merkataritza guneetan hizkuntza-paisaia (bereziki denda eta tabernetan) euskeraren presentzia txukun-

du eta indartu egin nahi dogu. Denda, taberna eta jendeari zerbitzua eskaintzen jaken establezimenduen errotulu eta idatzizko materialean eta kaleko iragarkietan euskararen erabilera bultzatu (adibidez: ordutegiak, eguneko menuak, fakturak, lehen berba euskaraz adieraztekoak, eta abar).

Ekintza hau bideratzeko Udaleko "Euskera Zerbitzuak" itzulpenetan eta zuzenketak egiteko diru-laguntzak eskainiko ditu.

Herritarren txokoa

Aldizkari hau areatzatarren txokoa izatea nahi dogu. Horretarako zure laguntza behar dogu. Inolako itaunik, iradokizunik edota istoriorik azaltzeko badaukazu, bidali Areatza Euskeraz Lantzen zure aldizkarira, bai posta arruntaren bidez, bai posta elektronikoa erabiliz.



Gudarien Plaza 7, 48143 Areatza
areatzalantzen@hotmail.com

Gotzon Lobera,
Bizkaiko Foru
Aldundiko
Euskera
Zuzendaria

Erakunde ezbardinek gogor dabilta jokatzeko euskera gure herrietan bizibarritzeko eta mantentzeko. Horretarako plan berezi bat prestatu da eta Gotzon Loberak plan horren ezaugarriak adierazi deuskuz

“Gure euskera bizibarritzeko danon laguntza behar da”

Zein da Aldundiaren plangintza euskera gure lurraldean bultzatzeko?

Euskeraren gaurko egoeraren aurrean, aldundiok, Eusko Jaurlaritzak eta udalek plangintza bera daukagu, 1999ko abenduan Eusko Legebiltzarrean onartua, hiru helburu estrategikoekaz eta helburu horren garrantzia doa herrien arabera. Lehenengo helburua gurasoek seme-alabakana euskera pasatzea, bigarrena euskeraz ez dakienak euskeraz egitea, eta hirugarrena, egiten dan euskera ona izatea. Plangintza honek daukan abantaila herrialde bakotxaren arabera moldatzen dela.


Zelan beteko dira helburu horreek?

Tresna batzuen bidez eta hauek bideratuta dagoz euskeran eragiteko diharduen alkaterei, suspertze lana bideratzea; beste aldetik, udalei eta mankomunitatei laguntzak emotea, herritik hurbilen dagozkanak direlako. Baina gure lana ez da bakarrik laguntza hori emotea, baizik eta

herri horreetan plangintza zelan gauzatzen dan ere koordinatu. Koordinazioan hau Alkarbide Foroaren bidez egiten da eta bertan Eusko Jaurlaritzak, aldundiok eta udalek parte hartzen dogu maila politiko eta teknikoetan. Beste tresna bat diru-laguntza herriei emotea da plangintzaren helburuak betetzeko herri bakotxak egokiak diranak erabagiten dituen ekintzak aurrera eramateko. Baita be, udalek politika sektorial bat egin behar dabe euskera bultzatzeko egiten diran programak jarraikotasuna eukiteko.

Zein da euskeraren egoera?

Gauza bat kontuan izan behar dogu: euskera prestigioatu behar da. Euskeraren egoera oso txarra zan, bakarrik txoko txikietan eta herri bazterretan egiten zan euskaraz. Orain dala 23



Gotzon Lobera.

urte, euskera berreskuratzen hasi gintzanean, dana egiteko egoan, “0”tik hasi behar ginan lanean. Gaurko belaunaldi honek badaki euskeraz, beraz lan erdia eginda dago, baina oraindik askoz be gehiago egin behar da. Bestaldetik, oso garrantzi-tsuak dira euskeraz idatzitako aldizkariak gaur egun. 30 urtetik beherakoek badakie euskeraz irakur-tzen eta ohitura hori mantendu behar dabe. Eta 30 urtetik gorakoak honelako aldizkariak apurka-apurka irakurtzen saiatu behar dira, ez euskeraz idatzita dagozelako, interesgarriak direlako baino.

Saneamendua osotzen

Udalak CYCASari esleitu deusaz Areatzagane eta Sakramentinoen inguruetako hornidura eta saneamentu lanak. Edateko ura horniduteko eta hondakin urak batzeko lehen mailako sare barriak egingo dira eta udal sareak barritu egingo dira. Behar horrek egiteko, akordio bat lortu da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoagaz, izan be, Partzuergoak 300.000 euroko inbertsionoa egingo dau eta bera arduratuko da beharren koordinazioagaz. Era berean, udalerrian aurreikusitako beste behar batzuk egiteko epea be aurreratuko dau. Aldi berean, eta zangak zabalduko dirala aprobetxatuz, zuntz optikoko sare nagusia sartuko da.



Andra-gizonen BARDINTASUNA

Udalaren partetik "Emakume eta gizonezkoen aukeraberdintasun plana" diseinatu nahi da, eta horretan gabiz, aurkezpena egin ondoren. Lehenengo aukera-bardintasun arloan gure herri mailan zelan gagozan jakin behar dogu, horretarako azaroan emakumeen artean batzar batzuk egin ziran, Inveslan enpresaren laguntzaz. Enpresa hau berdintasun gaietan adituak dira, eta batzar honeetatik atera diran ondorioetan oinarrituz herriaren egoerari buruzko diagnostikoa egingo dau eta egoera hau hobetzeko helburu batzuk finkatu. Honen borradorea urtarri-lan aurkeztuko da danon artean eztabaidatzeko

Diagnostikoa amaituta dagoanean, herritar guztien eskura jarriko da jakitun izan daitezzen eta berdintasun arloan hobetu ahal diran gauzak danon arteko ahaleginaz hobetzeko.

Peatonalizazioa martxan dago

Areatzako Udala, Arratiako Mugikortasun Erakargia Plana jarraituz, herriko Alde Historikoko trafikoa lasaitzeko eta oinezko bihurtzeko ahaleginetan ari da. Horretarako hasi dira Askatasun kalea urbanizatzeko lanak, Areatzaganetik elizaraino, eta elizatik igerilekuraino, kotxeen abiadura moteltzeko asmotan, eta era berean, aisiialdirako eremu berri bat sortuz Alde Historikoan sartzeko ate gisa.

Udalak uste dau beharrezkoa dala Areatza oinezko bihurtzeko lanetan aurrera jarraitzea, herritar guztion bizi kalitatea hobetuz eta ezusteko bat gertatzekotan segurtasuna bermatzeko (anbulantzia, suhiltzaileak...).

Hartutako neurri honeek ez dira aparkamenduaren eta



Kaleak oinezkoentzat dira.

oinetzko bihurtzeko arazoek behin betiko konponbidea, baina Udalaren ustez herriko egoera hobetu ahal bada, batez be segurtasun arloan, ondo legoke poliki-poliki aldaketa txiki batzuk egitea konponbide osoa aurkitu arte itxoin beharrean. Izan be, danok apur bat emonez arazoak konpon-tzen lagun daikegu.

GORBEIALDEren Gazte Plana badator

Gaizka Gorosarri,
Gorbeialde

GORBEIALDE landa garapenerako alkartea, Gorbeialderako Gazte Plana egiten dabil. Gazte Plana gauza estrategikoa da eta Euskadiko giza kohesioa bultzatu nahi dau. Plan osoa sektoreartekoa eta erakundeartekoa da. Irekia eta giza parte-hartzea behar dauan plana.



Gazte Plana martxan jartzeko taldeak lanean dagoz.

Gorbeialden plan hau ezartzeko abiapuntua gazteen gaur egungo diagnostikoa egitetik hasi da. Hilabete honeetan alkarriketa tekniko sorta bat egin jake erakundeetako arduradunei, alderdi politikoei eta ikerketa honetan parte hartzen daberen Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa, Orozko, Otxandio, Ubide, Zeanuri eta Zeberio udalerrietako giza agenteei. Ikerketa honen helburuetan

15 eta 35 urte bitarteko ia 5.000 gazte sartzen dira.

Gazte Plana bost lan ataletan estrukturatua dago: lana eta enplegua lortzeko bideak; hezkuntza eta enplegurako heziketa; etxebizitza; osasuna eta giza ekimenak; eta aisia eta gazte kultura. Hasierako diagnosi fasean aurkitzen da, alkarriketa honeen bidez eta Gorbeialdeko 600 gazte baino gehiagori egiten ari

diren inkestean bidez, Arratia-Nerbioirako Gazte Plan baten proposamena egitea nahi da gaur egun dagozan giza beharriari erantzuna emateko tresna egokia izan daiten; alde batetik, gazte munduak lehenago aipatutako bost arloetan dituan arazo zehatzei erantzun osoa emateko eta bestetik, Gorbeialdean arlo guztietan berrikuntzak bultzatzeko gazteen askatasun osoaren bidez.



Alde Zaharra berpizten

Udalak egindako lanari esker, Eusko Jaurlaritzaren 2004-2008 aldirako Izartu Planak 1.200.000 euro esleitu ditu Areatzan azpiegitura arloko beharrak egiteko. Egingo dan lanik garrantzitsuena Errukiñe kalea urbanizatzea izango da, eta 2006. urtean hastea dago aurreikusita. Horretaz gainera, hobekuntza beharrak be egingo dira Areatzako Alde Zaharreko leku batzuetan.

**ALKATXOFO ETA
BERE LAGUNAK,
herriko pailasoak**

Areartzako jaietako "errebelazinoa" dira bere Takolo, Pirritx eta Porrotxen bertsinoak izugarrizko arrakasta izan ondoren. Gorkak, Rosanak, Javik, Juanek eta Pedro Josek areartzatar lagun talde hau osotzen dabe eta datorren urterako prestatzen dabilta

"Jendeak ez dau pentsatzen hain ondo egingo gendunik, ezta guk be"

Zelan batu zineen taldea osatzeko?

Egia esan, dana gure umeei esker da. Gure artean lagunak gara eta komentatzen gendun euskeraz eгина ez egoala ezer umeentzat. Beraz, herriko jaietarako zeozer prestatzen hasi gintzen, joko bat bezala, Takolo, Pirritx eta Porrotxen eredia jarraituz. "Parrandan" antzezlan hartu dogu eta gure erara moldatu dogu, herriko izenak eta berbakaz. Ez daukagu lotsarik eta, gainera, aurretik Juanek malabareak egin dauz eta Rosanak play-back lehiaketetan ibili da.

Nolakoa izan da esperientzia?

Aurretik pentsatutakoa



Javi, Gorka eta Rosana.

baino hobe. Jendeak ez eban pentsatzen hain serio eta ondo egingo gendunik, ezta guk be. Gainera, hainbat laguntza eduki dogu, herriko 8-10 urteko gazteena dantzan eta bertsoetan, eta beste jendearena bere jan-tziak eta dekoratuak egiteko, soinua ipintzeko...

Esaten dozue ez dagozala gauza askorik umeentzat euskeraz.

Horrela da, gure umeak ikusten dogu. Oso bideo gutxi dagoz euskeratuta, adibidez. Guk egindako antzezketa bezalakoak behar dabez eta eskertzen ditue, oso rezeptiboak diralako adin horretan.

Zein izan da zuen arrakastaren gakoa?

Areartzan honelako ekitaldi bat egitea errazagoa da Bilbon edo beste herri handiago baten baino. Hemen familia handi bat bezala gara. Denok ezagutzen gara eta horrek konplizitate eukitzea errazten dau.



Alkatxofo eta bere lagunak

Gainera, bertoko hizkera erabili dogu aurretik ondo eta sakon landuz danak ondo ulertzeko. Horrela lan "historiko" bat be egin dogu. Ordu asko dagoz antzezlan horren atzean, baina merezi izan dau. Gure asmo bakarra umeak alaitzea eta poztea izan da.

Eta orain zer?

Gure bizitza oso-osorik aldatu egin da ordutik hona. Beste herri batzuetatik be deitu egin gaitue. Bideo batzuk egitea nahi ditugu. Hemendik aurrera hobeto antolatuko gara eta obra orijinal berezi bat prestatuko dogu ume eta nagusiak alaitzeko.